IKUSI

Aktoresa apartak eta oso estilo propioa

Maria Angeles ARILLA

Mujeres al borde del ataque de nervios
Espainia, 1988. Komedia
Zuzendari eta gidoilaria: Pedro Almodóvar
Aktoreak: Carmen Maura, Maria Barranco, Julieta Serrano
Aretoa: Astoria

Jadanik zazpi pelikulek osatzen duten karrera profesional baten zehar, Pedro Almodóvar-ek espainiar zuzendaririk berritzaile eta pertsonalenetarikoa dela erakutsi du. Eta bere lan gehienen arrakastak, kasu batzuetan atzerrira ere iritsi dena, ia beti punturik egokiena lortu duela erakusten du. Hainbeste gustatzen zaion situazio komiko, drama, umore, maitasun istorio, betiko aktore eta desmadrez osatutako multzoa jendearen gustokoa da.

Baina Almodóvar, guzti horretaz aparte, bizkorra da. Eta, agian «Matador» salbu, bere pelikulek eskema berdinak errepikatzen dituzte, baina situazio konkretuak bariatuz.

Bere lehen filmea, «Pepi, Lucy, Boom...», kutrea, zoroa, desmadratua, pobrea eta gehiegizkoa zen baina antzematen zitzaion nola kamara ostean sortzaile bat zegoen. Hasiera nahiko nahasia zen eta edozer tipoko pelikularen oinarria izan zitekeen. Baina Almodóvar-ek bere zazpi pelikulekin berezko estiloa duela frogatu du. Eta, garrantzizkoagoa dena, estiloa hobetu du denboraren poderioz, txiste errazak eta surrealismo merkea ahaztuz, bere sinpletasunean konplexuagoa eta landuagoa azaltzen delarik.

Almodóvar-en zinea gustatzen zaizu edo ez. Halere, ikusleak gogoratzen dituen pelikulak egiten ditu eta pertsona asko hunkitzen duten produktuak dira harenak, idei-eskasiari buruz horrenbeste hitzegiten den une hontan. Berak ez dauka efektu berezirik erabili beharrik, ezta mozkin gehiegi ere.

«Mujeres al borde...»-rekin, Almodóvar-ek bere ikutu propioa berriro azaldu du eta aktore zuzendari ona dela (Maria Barranco-ren lan apartarekin) eta emakumeak inor gutxik bezala ezagutzen dituela erakutsi ere. Amodio ezak sortzen duen arazoa duten emakume zokoratuen istorioa kontatzen du. Bi egun irauten du eta gatazka egoera konstantea da. Azkenean, hainbat gorabeheraren ondoren, batzuk benetan dibertigarriak, dena zegoen bezala gelditzen da. Itxura baten behintzat. Baina, nerbio arazoarekin edo gabe, emakumeak hazi egin dira, pixkat gehixeago bermatu dira. Ikusleak barre egingo du, bere begien aurrean pasatu den melodrama dibertigarriari buruz zerbait pentsatuko du, aktoresa handi batzuk goratuko ditu eta zuzendariaren pertsonalitatea ezagutuko.

Almodóvar-en estiloa benetan estimatzea, hori beste kontu bat da.

ETA ABAR

LAZKAOKO IKASTAROAK. Lazkaoko «Maizpide» euskaltegi inauguratuberrian udako euskara-ikastaroak izango dira. Uztailan hiru astekoko ikastaroak, abuztuan hiru astekoak ere, eta irailean laukoak. Orain hantxe ikasten ari direnek lehentasuna izango dute uztail eta abuztuko ikastaroei dagokienean, baina bestelako jendeak ere badu izen ematerik: hain zuzen, maiatzaren 4tik aurrera hasi liteke jendea izen ematen, telefono hauetara deituz: 88 92 31 - 32. Zentru honetan ikastekoko izango diren baldintzak behar bezala ezagutu nahi dituztenek hantxe bertan eskatu dezakete txosten berezia. «Maizpide» euskaltegi berri honetan orain arteko Goiherriko Euskal Eskolako jendea ari da.

GAZTEEN ARTEA 87. Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Gazteen Artea sariketako lanik onenak ikusgai daude Zarautzen. Maiatzaren 15a arte iraungo du erakusketak. Marrazkiak, grabatuak, pintura-lanak, komikiak eta ekulturak ikus daitezke bertan. Guztira 33 lan.

BIZIA LURREAN. Aurrezki Kutxa Munizipalaren Donostiako Arrasate kaleko aretoan zientziaren inguruko bideo-lan batzu projektatzen ari dira. Elhuyar kultur elkartea da antolatzailea. Atzo hasi ziren eta ostiralarte izango. Emanaldi hauetan, bizziaren eboluzioa nolakoa izan dan ageriko da, biologiako alderdi ugari erakutsiz. Ordutegia, hauxe: arratsaldero, 7,30etan.

ENTZUN

ERRETA

CCCP-FEDELI ALLA LINEA. *Socialismo e barbarie* (Virgin). Ea bada, apostu bat: ezagutzen duzuen *rock* talde italiar bakoitzagatik bokata bat ordaintzen dizuegu. Seguru gosez hilgo zaretela. Eta hori Italia bai geografia bai kultura mailan herrialde nahiko hurbila dela. Gainera, bere musika herrikoia tradizio aberatsekoa da, estilo eta koloreko askotako ehundaka rock talderekin. Baina monopolioen interesek agintzen dute eta dolar gaiztoak, egungo lerdokeriarekin bat eginda, azken hamarkadetan itsasoz bestaldeko soinuak, eta ez besterik, entzutea eragin du. Gauzak horrela, gure ondoko herrialdeetan, Frantzia, Portugal, Italia eta Marokkon adibidez, zer gertatzen den ez dugu behar bezala ezagutzen.

Oker hau konpontzeko Virgin etxeak makina bat urtean *rock and roll* -aren munduan sartuta dauden Reggio Emilio-ko mutil gazte hauek laguntzea erabaki du. Euren izena argi dago eta Virgin-España-ren paperek diotenez sobietarren aldeko taldea da. Eurek jakingo dute baina LP honen eduki ideologikoak ez dauka horrekin zerikusi handirik. Ez dira berdinak «Sozialismoa edo basatikeria» kontsigna zaharra eta «Sozialismoa eta basatikeria» LParen titulua. Sobiet Batasuneko edo gertuko egoerak zuzenki aipatzen dituzten abestien tituluetan, *A Ja Ljublju SSSR, Radio Kabul* edo *Manifesto, Stati de agitazione*, ez da sobietarren aldeko jarrerarik antzematen.

Badirudi, CCCP-koek ironia askorekin aritzen direla. Baina, batez ere, *rock* bariatua, plurala, heldua eta nahiko orijinala egiten dute. Mitin antzekoak botatzeko soinu indartsu edo musika esperimentalaren munduari egiten zaizkion hurbilketen ondoan alde exotiko bat ere erakusten dute. Produkzioa garbia da eta Italian honen antzeko talde bikain asko baldin badago hobe dugu euren pausuak hurbiletik jarraitzea eta gurregan dagoen eragin anglosaxoniarra alde batera uztea.

IRITZIA

599.999 sinadura + 1eginik = 600.000

Paulo AGIRREBALTZATEGI

BATEGINIK Kanpainaren helburuetako bat «Euskara Hizkuntza Nazionala»ren aldeko 600.000 sinadura biltzea da, beste Kanpaina horrek badu, ordea, bere hurbileko aurrehistoria.

1985eko azken egunetan egin zuen CONSEOk (Mendebal Europako estaturik gabeko Herrien Konferentziak) bere lehen batzarrea Bartzelonan. Bost batzordetan banaturik egin zuen lana Batzarreak: horien artean Hizkuntza eta Kultura gutxituen batzordeak, non EKBk ere parte hartu bait zuen.

Batzordeak landu eta gero Batzarre osoak berretsi zuen agiriak titulu hau du: «Hizkuntzen normalkuntza Herrien berreraikuntzaren bide»; eta zera dio, besteren artean: «Hizkuntza nazional eta zapaldu guztiak onartzeko eta ofizialtzeko beharra eta Estatuen obligazioa baieztatzen ditugu». Eta erabakietako bat estaturik gabeko Herrien hizkuntz borroken inguruan urtero egun bat ospatzekoa hartu zuen CONSEOk. Martxoaren 21a da egun hori. Aurten ospatu dugu bigarren aldiz, nahiz eta Euskal Herrian behintzat oraindik oihartzun handirik ez duen izan.

Joan zen udaberrian SEASKAk hartu zuen asmoa, Iparraldeko hizkuntzazko egoera ilunaren eta bereziki euskarazko irakaskuntzaren eta ikstolaren egoera larriaren aurrean, Hego Euskal Herritik, Hego Kataluniatik eta Galiziatik Europako Parlamenturako beren buruak aurkeztuak zituzten hautagaiei agiri bat sinaraztekoa, Europako Parlamentu eta beste erakundeei eta Parisko eta Madrilgo gobernuei zuzendua. SEASKAk EKBri eskatu zion hiru Herrietako hautagaiei dokumentua helerazteko. Baina asmo hura ez zen burutu.

EKBk berak, ordea, «Euskal Herriko Euro-parlamentariei Gutun Irekia» kaleratu zuen, non SEASKAk prestaturiko agiriaren proiektuko puntu gehienak eta beste zenbait proposatuta bait zeuden, hautagaiek onar zitzaten eta Europako erakundeetara eraman.

Bereziki Euskal Herritik hautaturiko Karlos Garaikoetxea eta Txema Montero-rekin gutunari buruz zehazkiago elkarrizketatzeko geundela, Garaikoetxeak berak jaulki zuen ehun mila sinadura biltzeko ideia, Europan euskararen ofizialtasuna eskatuko zuena. Antzeko kanpaina egina zuten orduko katalanek.

Urrats guzti horiek daude 600.000 sinadura-bilketaren kanpainaren oinarrian.

Euskara hizkuntza nazionala

Euskarak, beste hizkuntzek bezala, Europan bere onarpen praktikoa izango badu eta horren ofizialtasuna sinbolikoa soilik izango ez bada, beharrezkoa da aurrenik horren onarpena hizkuntza nazional gisa eta horren normalkuntza eta berreskurapena Euskal Herrian bertan. Euskararen eta euskal herritarron hizkuntzazko eskubideak Euskal Herrian bertan aitortu eta bete behar dira aurrenik; orduan bakarrik izango dira onargarriak eta aitorgarriak Europako Elkartean dituenak.

Hizkuntza nazionala esatea ez da slogan hutsa, ezta esamolde erretorikoa soilik ere, Herriaren (nazioaren) berarentzako batasunaren oinarri izateaz gain, herritar guztien artean lokartzen da hizkuntza nazionala; baina hizkuntza nazionala batez ere da hizkuntza modernoa eta funtsean Herri jakin baten «kultur hizkuntza nagusia» izateaz datza. Sánchez Carriòn «Txepetxen hitzak erabiliz, zera da hizkuntza nazionala edo kultur hizkuntza: «la lengua como expresión de todo el saber que es accesible y necesario para la comunidad lingüística en su tiempo histórico propio», edo, beste eratara esanda: «la lengua como vehículo único y exclusivo para la expresión de los contenidos vivenciales y culturales de la nación». Euskararen batasuna da horrelako modernotasuna lortzeko nahitaezko abiaburua; eta horrelako modernotzea, berriz, kultur hizkuntza nazionala lortzeko bidea.

Horregatik BATEGINIK Kanpainan sinatzeko Agiriak aurrenik Euskara Euskal Herri osoan ofiziala izateaz gain, bertan kultur hizkuntza moderno eta nazional bihurtzeari begiratzen dio eta horretarako euskal herritar guztiok dugun eskubide eta erantzukizunari. Ondorioz edo, eskatzen du Euskararen onarpen ofiziala eta horren araberako politika Europako erakundeetan.

600.000 sinadurak, beraz, aurrenik baieztapen dira, eta ondorioz eskabide eta errebindikazio; baina funts-funtsean erantzukizun eta hitz-emate dira sinatzaile bakoitzarentzat: «Herritar guztien eskubidea eta erantzukizuna da herri (euskararen) berreskurapena eta normalkuntza», gogoratzen du Agiriak lehen lerrotik.

Euskara Europan

Europa Batuaren hizkuntzazko «batasuna» nolakoa izango den zehazteko dago oraindik; eta beraz, hizkuntza bakoitzak zein leku eta zein funtzio beteko dituen. Ezaguna da bederatzi milioi lagun dira, ordea, bederatzi hizkuntza bakarrik direla Europako Elkarteetan ofizialak. 30 hizkuntzetako (hizkuntza minorizatuetakoak). Horien artean gaude euskaldunok.

Euskarak, Euskal Herriko hizkuntza nazional eta «kulturala» bihurturik, zein leku edukiko duen etorkizuneko Europa Batuan horra guztion arteko gogoetarako eta eztabaidarako gai horietan garrantzizkoa. Gure eskoletan hainbat neska-mutil gai horietaz kezkaturik baldin badabil, euskal gizarte osoak ere etorkizunerako argituz joan behar duen arazoa dela uste du. Garrantzizkoa!

Sinadura emateak ez du ekintza pasibo eta «masibo» izan behar. Norberak eta beste nor askok ondo jabaturik sinatzekoa da dokumentua: «Euskararen etorkizuna Euskal Herria eta Europan» da gogoetagaia.

Horregatik 599.000 sinadura baditugu; zurearekin 600.000 izango ditugu... Eskerrik asko!

Zergatik Marathoia berriro?

Zergatik 40 orduz herriko jende guztia euskaraz jarri nahi dugun

Lasarteko Euskara Batzordea

MAIATZ honetako 7 eta 8an Euskararen Marathoia berriro egitearen arrazoirik nagusiena orain bi urteko aurreneko edizioak izaniko arrakasta dugu. Euskararen I. Marathoiak zituen helburu gehientsuenak betetzeaz gain, espero ez genuen eta egia bihurtu zitzaigun konstatazio baten lekuko izan ginen: 1.400 lasarte-oriatarrek aktiboki (oholtzara igoz) parte hartu zuen euskara helburutzat izanik. Hori da Marathoiaren arrazoia, eta hori berriz ere burutzera bultzatu behar gaituen froga.

Eta berriz ere partaidetza horretan oinarritu behar dugu, lasarte-oriatarrok bait gara euskarak bizi duen egoera aldatzeko geure eskuetan dagoena egin behar dugunok, gu bait gara euskara dakitenen portzentaia %42 izatetik %100 izatera pasa behar dugunok, gu bait gara lasarte-oriatar euskara hiztunen portzentaia %8tik %100era igo behar dugunok, gu bait gara euskaraz bizi behar dugunok, eta horregatik ere gu geu gara Marathoia.

Marathoia, lasarte-oriatarron euskararekiko topaleku bilakatu da. Euskara, hizkuntza minorizatu gehienek bezalaxe gizarte funtzioak betetzen ez dituenez, noizik eta behin gogoeta gai bihurtzen da. Batzutan ordubeteko tekniko baten hitzaldia izaten da, bestetan 3 orduz jaialdi batek gogorarazten digu, sarri oinak berotzen zaizkigu euskararen alde dirua lortze asmoz kilometro batzu eginez, eta guk behin bederen 40 orduz euskaraz bizitzeko aukera gauzatu nahi dugu. 40 orduz euskara geure eguneroko funtzioak betetzeko hizkuntza bilagarria dela frogatu nahi dugu, jaiki, jan, jantzi, erosi, ikasi, jolastu, maitasuna egin eta ametsetan ere euskaraz ihardutea posible da. Hori da 40 orduz lasarte-oriatarrok egin behar duguna, hori da Marathoiak eskaintzen diguna, eta hori guk egia bihurtu behar dugunak.

40 orduz haur, gazte, heldu eta zaharrok egingo dugu euskaraz, 40 orduz euskaldunzahar, euskaldunberri eta oraindik erdaldun garanok bilduko gara herriko plazan euskaraz bizi nahi dugula adierazteko. Horregatik egingo dugu «Euskararen II. Marathoia».

40 orduz, euskaraz dakigun askok euskarareikako urtean zehar dugun axolagabekeria sentituko dugu. 40 orduz, euskara ez dakigun lasarte-oriatar asko gure bizitzarako euskararen beharraz jabetuko gara, euskara geure haurren hizkuntza izatearen garrantzizaz konturatuko gara. 40 orduz, geure herriko plazan horrenbeste alditz faltan jotzen dugun giroa bizituko dugulako, 40 orduz euskal kultura guk geuk gauzatuko dugulako, 40 orduz geure herriaren adierazgarrietan lehena den euskara lantzen arituko garelako, horregatik egingo dugu «Euskararen II. Marathoia».